

K...eta! Kitto!

2016-VI-3

976 zkia.



Esperientziak partekatzeko ESKOLA

ERLAXATU ETA BABESTU
ZURE BEGIAK

ordenagailu, tablet, mugikor... pantailetatik

ESSILOR EYEZENEKIN,
**EGUZKITAKO BETAURREKO
GRADUATUAK OPARI**

www.multiópticasgipuzkoa.com



Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan

Gure betaurreko guztiak 2016 bildumakoak dira

RPSA 175/15 LUG.



Policlínica Gipuzkoa

Grupo  quirónsalud

Miren Uriarte, Policlínica Gipuzkoako erreumatologoa Eibarren:

“Erreumatologian azken hamarkadetan eman diren aurrerapenei esker, gaixoak zehaztasun eta argitasun gehiagorekin ezagutu eta identifikatzen dira”

Miren Uriarte erreumatologoa lokomozio-aparatuan ager daitezkeen patologientzat erreumatologiak eskaintzen dituen tratamenduen berri eman digu.

– Zein zerbitzu eskaintzen duzue?

Erreumatologian, batik bat, artikulua, hezur eta giharren gaixotasunen ikerketa indibidualizatua eskaintzen dugu, horren bitartez diagnosi eta tratamendu egokiak lortzeko. Horretarako ikerketa analitiko eta erradiologiko ugari ditugu.

– Zeintzuk dira kontsultarik ohikoena?

Erreumatologiak gaixotasun ugari hartzen ditu barne; alde batekin, hezur-metabolismoaren gaixotasunak, hala nola, osteoporosia. Gaitz hori da kontsultara etortzeko arrazoi nagusienetakoa. Dentsitometroaren bitartez hezurren dentsitate minerala neurtzen dugu, diagnosia egin ahal izateko. Bestetik, hanturazko gaixotasunak ditugu, non ohikoena artritis erreumatoidea den, espondiloartropatien aurretik. Gaixotasun kronikoak dira eta ikerketa, tratamendua eta jarraipen estua behar izaten dute.

Ohikoa den beste kontsulta bat lokomozio-aparatuen patologia mekanikoarena da, hala nola lunbalgiak, sorbaldako tendoietakoa patologia, etb. Kasu horietan, azterketa erradiologikoaz gainera, infiltrazioak ere egin daitezke, pazienteak izan ditzakeen sintoma desatseginak arintzeko.

– Zein aurrerapen izan dira tratamenduetan?

Erreumatologia asko aurreratu da azken 15 urteetan. Tratamenduen artean infiltrazio artikularrak aipa ditzakegu; aspalditik erabiltzen dira era guztietako gaixotasun erreumatikoetan. Hanturazko gaixotasun kronikoei dagokienez, azkeneko hamarkadetan, botika immunomodulatzaile sintetikoak erabiltzen dira, eta baita berriagoak diren botika biologikoak ere. Tratamendu horiekin, gaixo askok ez dute gaixotasun aktiborik, eta eguneroko bizimodu arazorik gabe egin dezakete.

– Erreumatologiaren arrazoiak areagotu egin dira?

Espezialitate honetan, azken hamarkadetan, aurrerapen handiak egon dira, maila terapeutikoan ez ezik baita gaixotasunaren etio-



Miren Uriarte, erreumatologoa.

“Hantura articularra kontrolatzeko tratamendua ZENBAT ETA LEHENAGO hasi, ORDUAN ETA HOBETO erantzuten dute pazienteek, eta artikulazioan kalte edo ondorioren bat sortzeko aukera ere txikiagoa da”

logiari buruzko ezagutzan eta diagnosi-tekniken garapenean ere. Horri esker, gaixoak, zehaztasun eta argitasun gehiagorekin ezagutu edo identifikatzen dira.

– Zein da pazientearen profila?

Gaixotasunaren arabera pazientearen profila asko alda daiteke, adibidez osteoporosiak gehiago eragiten die menopausia ondorengo emakumeei, eta eragina areagotu egiten da 65 urtetik aurrera. Oro har, gaixotasun erreumatikoek, gehiago eragiten diete emakumeei; gure pazienterik gehienak adinerdikoak dira, eta gaitz batzuk adin pediatrikoan ere agertzen dira.

– Noiz joan behar dugu erreumatologoarengana? Figura ezezaguna da?

Oro har, erreumatologia, mediku-espezialitate gehienekin alderatuta, ezezagunena dela esan genezake. Espezialitate berriagoa delako gerta daiteke hori. Erreumatologoaren-gana sintoma articular kronikoak ditugunean joan beharko ginateke, hala nola, mina, hantura, zurruntasuna... Hantura articularra kontrolatzeko tratamendua zenbat eta lehenago hasi, orduan eta hobeto erantzuten dute pazienteek, eta artikulazioan kalte edo ondorioren bat sortzeko aukera ere txikiagoa da.



ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Jose Luis Gorostegi, Silbia
Hernandez, Uxue Igarza
eta Haizea Arizaga.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Leire Iturbe eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.050 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

51. Euskal Jaia

Aurreko asteburuan, urtero moduan -maiatzaren azken asteburuan, hain zuzen ere- 51. Euskal Jaia ospatu genuen herrian. Kolore berezia eman diegu Eibarko kaleei, euskal kultura bete betean, euskara, ohiturak, folklorea eta abarrekin ondo pasatu eta disfrutatzeko.

Mila esker bihotzez hori dena gauzagarri egin duzuen guztiei: eragile, elkarte, instituzio edota norbanakoei, zuen laguntzarik gabe ezinezkoa izango litzateke-eta. Ezin denak aipatu, zerrenda oso luzea baita. Mila esker bereziki Klub Deportiboari, bere jarreragatik eta egiten duen ahalegin ekonomikoa zein pertsonalagatik.

Zorionak ere, era batean edo bestean, parte hartu duzuen guztioi, berriro ere denon artean posible egin dugulako.

Tamalez den-dena ez da hain baikorra. Antolakuntzatik gauzak ondo egiten saiatzen gara, errespetuz eta jendearen egunerokotasunean ahalik eta gu-

txien eragiten. Jakin badakigu batzuegan arazoak sortzen ditugula eta horiek ahal dugun neurrian ahalik eta gutxienera murrizten saiatzen gara. Baina ez dugu dena ondo egiten, ezta gutxiago ere, eta aurreko arazoak sortu ditugu zaratarekin: ez dugu hori ondo kontrolatu eta jakitun gara logikaren mugak gainditu ditugula. Orain egin ahal dugun bakarra molestia horiek disfrutu dituzten auzolagun guztiei era zintzo batean barkamena eskatzea da eta datozten urteetan berriro ez dela gertatuko konpromiso sendoa adieraztea.

Euskal Jaia herriari begirako ekimen kulturala da, jai giroan ospatzen duguna, eta horrela izaten jarraitzea nahiko genuke. Egindako akatsetatik ikasita, horiek zuzenduz, denondako eramangarria izan dadin beharrezkoak diren ahalegin guztiak egingo ditugu aurrerantzean ere, zalantzarik gabe.

Mila esker denoi!!

Klub Deportiboko Kultura Batzordea



Euskal Jaian zozketatutako otarraren zerbaki irabazlea 2.227 izan zen.

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LANBRO-LORRIN.- la bustitzen ez duen lanbroa. "Lanbro-lorriña egun guztian eta azkenerako higuinduta amaittu dogu".

LANBROTU.- Lanbruak eguraldia lausotu. "Dana lanbrotu egin dau eta bidia ikusi be ez da egitten".

astean esanak

"Sam Smith, Black Keys, Axl Rose, Foo Fighters-eko liderrak... istripuak izan badituzte ere, ezin da esan artistek, dituzten sarrerak gutxitu direlako, euren osasuna arriskuan jartzen dutela. Justu kontrako da. Inoiz baino gehiago zaintzen dira, prestatzaile pertsonalak dituzte, dieta zehatza jarraitzen dute... sendagileen taldea eurekin eramateraino. Zeinek esango luke Mike Jagger, 71 urterekin, zapasaltoka ibiliko zenik? 60 eta 70eko hamarkadetako rock-a, hura bai destroyer-a. Orain arriskurik ez dago"

(PINO SAGLIOTTO, PROMOTOREA)

"Amerikako Estatu Batuak amaierarik gabeko gerra batean bizi dira. Beharrezkoa egiten zaigu beste herrialde batzuk inbaditzea. Europak inbaditu egin beharko gintuzke gu: ez militarri, baina bai kulturali. Propaganda sozialista egiten dudala? Hemen ere sinesten dugu sozialismoan; arazoa da Amerikan, orain arte behintzat, sozialismoak aberatsentzat bakarrik funtzionatu izan duela"

(MICHAEL MOORE, ZINEMAGLEA)

"Beldurra da min gehien egiten digun emozioa. Iturri horretatik datozkigu gaitz larriak: sumindura, biolentzia, mendekua... Jendeak kirola egiten du

beldur horretatik ihes egiteko; eta amodioa egiten du beldurrarekin lotutako bakardadeaz ez jabetzeko. Horren aurkako errezeta bakarra besteen minarekin enpatizatzea da"

(EDUARD PUNSET, ZIENTZIALARIA)

"Ez da erraza irakaslea izatea heldua izatea nahi ez duen gizarte batean. Politikoak, udalak eta guraso asko gauza ez direnean gazteei berri txarrak emateko, eskolak hartu behar du horren ardura; horren ondorioz, edozein giza arazo eskola-gai bihurtzen dugu. Irakasleok presiopean egiten dugu lan eta nekatuta gaude"

(JAVIER CORTES, FILOSOFIA IRAKASLEA)



IMANOL MAGRO

Euskerarik ez palkuan

Eibar futbol taldeak presidente berria du. Zuzendaritzako kideek, hamaika gizon eta emakume bat, –desoreka horrek ere merezi du zutabe bat–, lema eramango duen pertsona berria aukeratu dute. Presidente ohia ez beste hamabiak ziren hautagai posible, zuzendaritzako kide bat nahi zutelako kargurako, eta justu, euskal hiztuna ez den norbait hautatu dute. Ez da kasualitatea, alegia, zuzendaritzako kide horientzat euskal hiztuna izatea ez zen ezinbesteko baldintza palkuaren erdiko eserlekuan egoteko.

Jakina da taldearen administrazio kontseiluak urte zaila izan duela. Hedabideetan atalka irakurri ditugu barneko botere borrokaren gorabeherak. Gero alde guztiek ukatu dituzte, hala bada, makina bat hedabiderekin argitu beharko lituzkete kontuak. Baina tira, harira, giroa lasaitzeko kontsentsu hautagai baten alde egin behar izan dute eta hura ez da euskaraz moldatzen. Aurkezpen ekitaldian behintzat gaztelaniaz bakarrik egin zuen. Ziur nago presidente berriak curriculum ona duela, eta taldea kudeatzen jakingo duela, baina pena ematen dit euskal hiztun bat ez aukeratu izanak, egon bazeudenean. Gauza jakina da hizkuntzari prestigioa emateko modu bikaina dela agintari publiko zein pribatuek euskaraz jakitea. Haiek irrati eta telebistetan euskaraz entzuteak presentzia eta ikusgarritasuna ematen dio hizkuntzari, eta Lehen Mailako futbol talde bat leihio handia da. Guztiok dugu oroimenean Gaizka Garitanok Almeriako prentsa aretoan izandako keinua, eta futbolaren leihio horri esker euskarak jaso zuen zilegitasun olatua. Halakoak zaintzea ere 'Eibar Modeloa' da.

Etxiak errentan hartzeko diru-laguntzak

Gaztleri etxia errentan hartzia errazteko asmuarekin udalak horretara bideratutako diru-laguntzen programia ipiñi dau martxan. Holan, gaztleri lagundu ez eze, partikularrak erabili bariko etxiak alokairu-merkatura etaratzia be billatzen dabe. Diru-laguntzak eskuratu ahal izateko bete biharreko baldintzak hónek dira, bestiak beste: alokairuan hartutako etxian bizi diran guztiak 18 eta 35 urte bittartekuak izatia; eurretariño ezin izango dau errentatzailiarekin lehen edo bigarren maillako famelixa-loturarik euki, ezta etxe baten jabe izan be; etxian bizi diranetatik kide bat, gitxienez, azken 24 hillaletiak Eibarren errolatuta egotia; kide guztiak Etxebide-ren erregistruan alokairua eskatzeko izen-emonda egotia edo horretarako eskaeria eginda eukitzia; unidadia osatzen dabenen urteko sarrera gordiñak 3.000 eurotik gorakuak izan biharko dira eta 25.000 eurotik beherakuak kide bakarreko unidadien kasuan edo 39.000 eurotik beherakuak bi kide edo gehixago dakenen kasuan; eta errentak ezin izango dittue gaindittu hilleko 550 eurua. Deialdixari buruzko informaziño guztia eta eskabide-orrixak www.eibar.eus webgunian eskuratu leikez, "Tramiteak eta zerbitzuak" ataleko "Bekak, diru-laguntzak eta laguntzak" blokian.



murriztu biharko dittu udalak CO2 isurixak, energixa barriztagarrixak %20 gehixago erabilli eta argindarrian beste horrenbeste aurreztu, 2013an EVE-rekin izenpetu eban hitzarmenian jasota daguan helburua betetzeko eta, asmo horrekin 20.000 euroko partida jaso dabe 2016ko aurrekontuan.

Kirola Euskaraz Bizi jaialdixa

Juan Antonio Mogel ikastolak, euskeriaren erabilleria suspertzeko ahalegiñari jarraituta, XIX. Kirola Euskaraz Bizi nagusixen olinpiadia antolatu dau bixarko Iturburun. Programia goizetik hasiko da, 08:30xetan taldien argazkixak eginda. Kirol lehiaketia jarraixan, 09:00etan hasiko da, DBH eta 6. maillakuekin (eskubaloia-saskibaloia-pelota). Parte hartuko dabentaldien desfilia 10:00etan izango da eta 11:00etatik aurrera kirol proba ezberdiñak beteko dabe goiza: pelotia, foballa, saskibaloia, boleibolak, hockeyxa, sokasaltua, sokatira... 12:30xetan, barriz, musikia hasiko da, "Euskarra da Euskal Herri" eta soiñujoliekin. Eta goizekuak agurtzeko, 13:00etan abiadura eta errelebo probak jokatuko dittue. Bazkaltzeko atsedenaldira eta gero, 15:30xetan Lehen Hezkuntzakuen foball finalak hasiko dira jokatzen. Ordubete geruago txinga-eruatzen, kaskara biltzen eta sokatiran jardungo dabe eta 17:30xetan krosarekin agurtuko dittue kirol probak. Eta 18:00etan sarixak banatuta amaittuko dira aurtengo nagusixen olinpiadak.



Olinpiada Txixixak, barriz, hurrengo asteburuan, ekaiñak 11n ospatuko dittue.

Betiko moduan, ahal dala garraio publikua erabiltzeko eskatu dabe antolatzailliak eta, hori erreztiarren, Iturburura jua-etortzeko autobus zerbitzua 08:00etan eskintzen hasiko dira (Untzaga-Iturburu eta Urkizu-Iturburu). Gerotxuango jua nahi dabentak be eukiko dabe autobusez igotzeko aukeria, Untzagatik 10:30xetan, 12:30xetan eta 13:30xetan autobusak urtengo dabe eta. Iturburutik jaisteko autobusak, barriz, ekitaldira amaitzian, 18:30xetan abiatuko dira.




Agintaldiko lehen urtiarekin pozik

Aurreko astian egindako agerraldixan, agintaldiko lehen urtiaren inguruko baloraziño "oso ona" egin eban gobernu-taldiak. Urtebeteko tartian egin diran ekimeneri errepasua eginda, "urte honetan 180 ekimen baiño gehiago" garatu dirala azaldu eban, "garapen ekonomikuarekin, gizarte zerbitzuekin eta hirigintza-hobekuntzarekin lotutako proposameneri" arreta berezixa es-

kindu detsela azpimarratuta. Gehiengorik ez izatian, bestalde, gobernu-taldiak gaiñerako talde guztiekin etenbarik negoziatu bihar izan dau eta, esandakuari jarraituta, "hori dala eta, aurkeztu diran proposamenetatik % 90 baiño gehiago aurrera etara dittugu". Gauzak holan, gobernu-taldiak "balanze ona benetan" egin dabela emon eban aditzera.

Korreoz bozkatzeko informaziñua



EH Bilduk zerbitzu berezixa ipiñi dau martxan, hurrengo hauteskundietan botua korreoz emon nahi dabeneri bihar daben informaziñua emoteko asmuarekin: azalpenen bat jaso nahi dabenak Bilduren udaletzeko bulegora jua leike, astelehenetik barixakura, 10:00etatik 12:00etara edo, bestela, astelehen, eguazten eta barixakuetan Zezenbide kaleko Alkartetxian be hartuko dabe jendia, arratsalde, 18:00etatik 20:00etara. Horrekin batera telefonoz be argittuko dittue zalantzak, 626 548 327 zenbakixan. Goguan izan posta bidezko bozka eskatzeko epia hillaren 16xan itxiko dabela.

autuan

TXONTAKO MAHAIXA

Txontako Mahaixak agintaldi honetako lehen billeria egin eban eguaztenian, holan azken urtian auzokuak eta talde diferentietako ordezkariak behin baiño gehiagotan eskatutakua beteta. Horren aitzakixarekin, eraitsi biharreko etxietan bizi diraneri beste tokiren bat "lehenbailehen" billatzeko eskatu detsa EAJ-k udalari, "batez be presa gehixen dakeneri".



IKASTEN-EKUEN IBILLADIXA

Eguaztenian exkursiñua egingo dabe Ikasten alkartekuak: goizeko 08:10ian Ardantzian trena hartuko dabe (Estaziñuan 08:12xetan) Zumaiara juateko eta, behin hara aillegauta, Debaraiño oiñez juateko asmua dake, kostako bidiari jarraituta. Antolatzailliak esandakuaren arabera, oinguan ez da biharrezkua izango bazkarixa etxetik eruatia.

Zure Lanerako Bidea

Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa

ai arizmendi
ikastola **PRO**

→ TAFYD

→ Mikroinformatika

Berria!

→ Erizaintzako
zaintza osagarriak

→ Osasun
larrialdiak

Berria!

konfiantzaz

AURREMATRIKULAZIO EPEA
ekainaren 6tik 17ra

943 77 20 25 (ext.4322) • lanbide@arizmendi.ikastola.eus

www.arizmendipro.eus



Landa-eremurako diru-laguntzak

Landa-eremuen ekonomixaren dibersifikaziñorako eta landa-eremuak garatzeko laguntzen deialdixak emon dittue argittara maiatzaren 31ko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialian. 2016. urterako deialdixak landa-eremuak sustatu eta garatzeko aurreikusten dittuan laguntzak ekintza hñonetara bideratuko dittue (onuradun publikuak): landa-biztanlien bizi-kalidadia hobetzen laguntzeko azpiegiturak egitteko; industria-lurzorua gaitziarekin eta enpresa-ekimene bidez erabilliko diran lokalak egokitziarekin lotutako inbersiño-proiektuak egitteko; turismuarekin lotutako kultura eta natura ondareko in-

bersiño-proiektuak eta jendiak erabiltzeko aisialdi, turismo eta informaziño azpiegituren proiektuak egitteko; eta energixa barriztagarrixekin eta energixa aurreziarekin lotutako inbersiñuak abian jartzeko.

Eta landa-eremuen ekonomixaren dibersifikaziñorako zein garapenerako laguntza-motak hñonek dira: nekazaritzarekin lotuta ez duguazen baiña sektoria dibersifikatzen daben jarduerak; mikroenpresen eta enpresa txiki eta er-taiñen eraketa eta garapena; eta enpleguaren sorrera garbixa. Kasu bixetan eskaeriak ekaiñaren 30era arte aurkezteko aukeria dago. Edozelan be, la-

guntzen inguruko edozein gai argitzia bihar izanez gero, Debemen alkartiarekin kontaktuan ipiñi leike (Elgoibarren, Kalebarren plaza, 1-2), 943744067 telefonora deittuta edo, bestela, agurtzane@debemen.eus (Agurtzane Etxaniz) edo amaia@debemen.eus (Amaia Esnaola) helbidietara idatzi.



Eskaeriak ekaiñaren 30era arte egitteko aukeria dago.

Eskaparatismo taillarra duan

Dendarixendako dohaiñeko taillarra antolatu dabe eguaztenerako Gipuzkoako Merkataritza Bazkondekuak eta Eibarko Merkatarixen Bulego Teknikuak alkarlanian, eskaparatiak zelan preparau ikasi nahi dabenendako. Kurso praktikua izango dala aurreratu dabe eta eskualdeko merkatariz guztiendako zabalik eta duan eskinduko dabe. Portalean, ikastaro gelan 14:15etatik 16:15etara egingo dan saiuan, bestiak beste, eskaparatiak atontzeko erabilli

leikiazen materixalak eta erremintak, apaingarrixak atzera be erabiltzeko aholkuak, gauzak modu egokixan erakusteko teknikak eta beste kontu praktikiko batzuren gaiñian jardungo dabe. Juan nahi dabenak Eibarko Merkatarixen Buleguan emon biharko dau izena, 943254083 telefonora deittuta (Leire Ojanguren edo Aitor Agirre) edo, bestela, mezua bialdu leire.ojanguren@fmg.es edo info@eibarcentrocomercialabierto.com helbidera.



Bat, Barik eta Mugi, Euskotren-en sare nagusixan be

Eusko Jaurlaritzak eta Euskotrenek abiarazi daben ekimenari esker, Euskotrenen zerbitzu nagusixan (Bilbo-Donostia-Hendaia trenian eta Amorebieta-Bermeo adarrian) Bat, Barik eta Mugi txarteletako edozein erabiltzeko aukeria dago. Horren harira egindako adierazpenetan, Oregi sailburuak "txartel bakarra ezartzia Eusko Jaurlaritzako Garraio Plangintzaren Zuzendaritzaren lehentasunetako bat izan dala" azaldu eban, horren alde biharrian segitzeko asmua dakela gaiñeratuta.



Leire Barbarrubio Etxeberria



“ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira GURE ARTEAN”

Mirenen lagunek eta haien gurasoek



TUTULUMENDI



IDURRE IRONDO

Urkiko jaixak ekaiñeko bigarren asteburuan

Eguaztenian presentau eben aurtengo Urkiko jaixetarako preparau dabon programia jai batzordeko kidiak, alkatiarekin batera Aterpe alkartian egindako agerraldixan. Azaldutakuari jarraituta, "aurten jaixak beste batzuetan baiño pixka bat geruago, ekaiñeko bigarren asteburuan ospatuko ditugu, asteburu honetan, zapatuan egingo diran ikastolako olinpiadekin eta domekako Finalista Egunarekin bat ez egittiarren". Bestela, egitarauak aurreko urtiotako martxari jarraituko detsa oinguan be. Aldaketa nagusiña musika emanaldixetan izango da: "Jende gehixago erakartzeko asmuarekin, barixaku eta zapatu gaueko berbenak zein bestelako emanaldixak Polonia Etxebarria kalian egittia erabagi dogu, jende askorendako eskolako jolastokixa pixka bat aldentuta geratu leikiala pentsatzen dogu eta". Aurreratu dabenez, auzoko jaixeri nortasun berezixa emoten detsen cava eta otarrainxkaren jaixan 150 kilo otarrainxka eta 420 botilla banatuko dittue, Rioja, Bodega, Nuevo, Cepa eta Vila tabernak emondako laguntasunari esker. Egi-



Haraiñegun egiñ eben jaixen aurkezpena. Silbia

tarau osuaren barri datorren asteko alian izango dozue (etakitto.eus webgunian eskuragarri dago).

Matrikula zabalik euskaltegixetan

Euskeria ikasi nahi dabonak herriko euskaltegixetan izena emoteko aukeria daka, horretarako epia zabalik dago eta. Udal Euskaltegixak eskinduko dabon udako ikastarorako matrikulia hillaren 17ra arte bete leike, euskaltegira (Portaleko 2. pisura) juanda, goizez 08:30etatik 14:00etara eta arratsaldez 16:30etatik 19:00etara, 943 700912 telefonora deittuta edo eibar.eus helbidian, udal eskoleri eskindutako atalaren barruan dagan Udal Euskaltegixaren azpiatalian sartuta. Eta AEK euskaltegixak be hainbat maillatan euskalduntzeko aukeria emoten dabon ikastaro trinkuak preparau dittue udarako. Informaziño gehixagorako AEK euskaltegira juan leike (Sostotarren, 1), 943 201379 telefonora deittu edo aek.eus helbidian begiratu.



Euskal Eskola Publikuaren jaixa Hendaian

Etzi, ekaiñak 5, lehelengo aldiz ospatuko da Ipar Euskal Herrixan Euskal Eskola Publikuaren egun haundixa. Jaixak 25 ediziño betetzen dittu aurten eta goiburu moduan "Emazu eskuia" aukeratu dabe. Hendaiaiko "leku zoragarrixan" egingo da jaixa, Lurdes Imaz Euskal Herriko Ikaslien Gurasuen Elkarteko koordinatzailliaren jakiñarazi zebanez: "Hendaiaiko Ville-Hiri barnea eskolaren eta Txingudiko badia-aren artian dagan pasialekua arnasgunia izango da euskeria erabiltzeko". Ikasbi Ipar Euskal Herriko ikastetxe elebidunetako gurasuen elkartiaren 30. urteurrena be bada. Iparraldeko fameli-



xen %70ek eskola publikua aukeratzen dabe, eta herenak ikastetxe elebidunak. Iparraldeko ikastetxe publikuen erdixak elebidunak dira (102 eskola guztira) eta 6.350 ikaslek ikasten dabe euskaraz: 5.200 ikaslek lehen hezkuntzan, eta gaiñontzekuak bigarren hezkuntzan. Hendaian LHko bost ikastetxe daude, eta hortik lauk eskintzen dabe eredu elebiduna.

Aurreko asteko barixakuan jaso zittuen diplomak Esperientzia Eskolako 12. promoziñoko ikasliak, ikasturtia agurtzeko Armerixa Eskolan egindako ekitaldixan. 21 lagunek jardun dabe aurten "Tximeleta" izenarekin bataiatu daben taldian, alkarrekin ikasten eta klasieri pena haundixarekin esan zetsen agur aurrekuan. Hori bai, ikasi dittuen gauzeri ahalik eta etekin haundixena etartzeko asmua dakela garbi laga eben. "Eskoliak guri mordua emon desku eta jaso dogun hori beste batzurekin partekatzia tokatzen jaku oin guri" esan eta, aurreko promoziñuen adibidiari jarraituta, ikasleohiak osatzen daben Ikasten alkartiaren eskutik oiñ artekuak jarraipena izateko esperantza dake.

CARMEN SARASUA

(Esperientzia Eskolako 12. promoziñokua):

"Ikasturtia oso konpletua izan da eta mordua ikasi dogu"

- Zelakua izan da ikasturtia?

lazko oktubrian, geure buruak bestieri aurkezteko ekitaldixaren ondoren, hillaren erdialdian edo... Klasera astian hiru egunetan juaten ibilli gara, martitzen, eguazten eta eguernetan, goizeko 09:30xetatik 12:30xetara eta kursuaren lehen zatixan hizlari mordua etorri jakuzen oso gai diferentien gaiñian berba egittera: filosofi-

xia, Gipuzkoako historixia, abildade komunak, zuzenbidea, etika, zahartzaro aktibua, nutriñia, ingurumena, literatura... hamaika gairen gaiñian egin deskue berba ikasturtian zihar bisitan etorritako hizlarixak. Horrekin batera, burua eta memoriaria arintzeko ariketak egin dittugu, gorputza luzatzen be edarto ibilli giñan, Donostira Tabakalera bisitan jua giñan,

Mendaron Kilimon errekiak daroian uraren ziklua bertatik bertara ikusi genduan, Durangon astronomixari buruzko azalpen oso interesantiak jaso genduzen eta beste toki batzuetara be jua gara eskursiñuan. Proiekto sozialak be landu dittugu eta KZgunian kursillua emon zeskuen, teknologixa barrixak zelan erabilli ikasteko. Benetan ikasturtia oso konple-

tua izan da, gauza morduaren inguruan berba egitteko aukeria euki dogu eta hizlari guztiak oso jatorrak eta atsegiñak izan dira, eureri esker asko ikasi dogu eta, gaiñera, oso oso gustora ibilli gara danak.

- Hitzaldixak eta albo batera lagata, ikasliak hainbat proiekturen inguruan biharrian jardun dozue, ezta?

Bai, ikasturtiaren bigarren



667 54 89 16 (Ritxar) kolorlan@hotmail.com



• tartak
• enkarguak
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

araba euskaraz

Lautada Ikastola

AGURAIN

ekainaren 19an



**GEROARI
BEGIRA**

autobus
Goizeko **08.30**ean
IRTENDA



zerbitzua
Arratsaldeko **19.00**etan
BUELTATZEKO

zatixan hasi giñan proiektuen kontuarekin. Lehenik eta behin, landuko genduzen proiektuak aukeratu bihar genduzen, alkarrekin ados ipiñitta, gaiñera. Horretarako klasiak koordinatzen dittuan Eva Perez de Albenizen laguntasuna euki genduan eta, berak emondako informaziño eta aholkueri jarraituta, halako batian erabagi genduan landu nahi genduzen proiektuak zeintzuk izango ziran: Eibar eta inguruan beiraren birziklapena modu egokixan egitten dogun ala ez ikusteko datu batzuk jasotzen ibilli giñan, baiña proiektu nagusiñak beste bi izan dira: "Jardiñian Bizi" eta "Emae-Damba Batukada".

- Eta zer landu dozue hórrek proiektuetan?

Jardiñian Bizi izenekuan zaindu barik eguazen lorategixak garbitzen, lora barrixak landatzen, hórretxek zaintzen ibilli gara. Izan be, ikaslien artian hainbatek lora zaintzaren inguruko zaletasuna zeken eta, hori aprobetxauta, Debako Alamedako putzu inguru eta San Andres zaharren egoitzako lorategixak bizibarritzen eta zaintzen ibilli gara eta emaitza benetan ikusgarrixa izan da, gu biharrin hasi aurretik eta ostian lorategixak zelako itxuria zeken begi-

Hamabigarren promoziñuan Eibar, Mallabia, Elgoibar, Deba eta Ermuko 21 ikasle, sei gizon eta 15 andra, ibilli dira alkarrekin ikasten, astian hiru egunetan klasera juanda

ratu baiño ez dago horrekin konturatzeke. Edarrak geratu dira eta holan luzaruan egoteko biharrin segitzeke prest gaöz. Eta batukada taldia osatzeko ideia, barriz, iaz eskolan ibillitako baten andriaren bittartez sortu zan, interesantia begittandu jakun eta 18 bat lagunekin taldia osatzeko moduan gengozela ikusitta, hurrengo pausua irakaslia billatzia izan zan eta holan topau genduan Basauritik guri perkusiño klasiak emotera etortzen ibilli dan Musta, gurekin primeran portatu dan mutil marokiar jatorra. Bera arduratu da materixala ekartiaz, guri erritmuak irakastiaz... Oso pozik ibilli gara berakin ikasten eta, gaiñera, perkusiñuak ondo pasatzeko ez eze, erlajatzeko eta beste kontu batzuetarako oso mese-

degarrixa dala ikusi dogu. Ensaiuak Beheko Tokixan egitten genduzen eta hango arduradunak aurtan San Pedruetan saiaua eskintzeko eskatu deskue. Hori izango da gure estrenua.

- Zelan animau ziñan Esperientzia Eskolarako izena emoten?

Nere aurretik ahitzia ibilli zan, bera "La Novena" edo bederatzigarren promoziño-kua da eta, hari entzundakuekin animauta, eta aurreko ikasturtian neuk izena emoteko sasoi egokixa zala ikusitta, matrikulia bete neban eta hartutako erabagixarekin pozik nago benetan, mundu guztiari gomendatzen detsat, bakotxak egokixen topatzen daben momentuan bizitzeko moduko esperientzia dala pentsatzen dot. Eskolia izanda be, honek ez daka zerikusirik gutariko edozeiñek aurretik izandako klasiakin, hamen ez da biharrezkua aurretik ezer jakitzia, batzuk bestieri entzunda ikasten juaten da, danak alkarrekin eta bakotxak dakixana bestiekin konpartitzen. Gai diferentien gaiñeko gure ezagutzak areagotiaz gain, bestienganako errespetua eta bestelako balore batzuk be ikasteko balixo dau eskoliak.



**GUK
LEA ARTIBAI**

WEB APLIKAZIOEN GARAPENEAN

Goi mailako teknikaria

AURREMATRIKULA: EKAINAREN 6TIR 17RA

- Goi mailako teknikari hauek web aplikazio informatikoak garatu eta kudeatuko dituzte, bezero eta zerbitzari inguruneetan.
- Datu baseen kudeaketaz eta zerbitzu, interfaze eta multimedia osagaien garapenez arduratuko dira.
- Profesional honek enpresa edo erakunde publiko zein pribatuetan gauzatzen du bere jarduera, besteren kontura zein bere kontura, web inguruneekin (intranet, extranet, App-ak eta Internet) erlazionatutako informatika-aplikazioak garatzeko arloan lan eginez.

lea artibai
i k a s t e t x e a
Etor-kizuna eraikiz

Markina-Xemein · 94 616 90 02 · info@leartik.com · www.leartik.com

Gure Esku Dago erabagitzeko eskubidiaren aldeko herri ekimenak antolatuta, bixar illuntzian ekitaldi berezixa egingo da Untzagan, jubilauren aldian daguan plazan: 'Piztu erabakiaren aroa' goiburuari jarraituta, jai giruan ospatuko dan ekitaldixa 20:00ak aldera hasiko da, umiendako taillarrak, makillajia, zuzeneko musikia, bertsuak eta beste jarduera batzuk eskinduko dittuan jaialdixarekin. Horrekin batera, Gure Esku Dagoren materixala (kamisetak, oihalak...) salgai ipiñiko dittue eta, nahi dabena, proiektuari laguntasuna emoteko zein bazkide egitteko aukeria be eukiko dau.

1.500 kandela

Egunerako preparau dabena programaren barruan, ekitaldi nagusixa 21:15ak aldera izango da: 1.500 bat kandela erabillita, lurrian 'Gure Esku Dago' esaldixa osatuko dabe, botua emoteko kutxa baten barruan. Holan, inguru guztia erabat illunduta daguala, ixotuta kandelak emongo dabena ar-



gixa baiño ez da ikusiko. Modu horretan irudikatu nahi dabe "herri honek erabagitzeko danka borondatia".

Ekitaldixa antolatu dabena berbetan, "erabagitzeko eskubidiaren trena Euskal Herrira aillergau da. Datozen egunetan, Hego Euskal Herriko lau probintzietan galdeketak egingo dira: Debagoiena, Aramaio, Azpeitia, Goierri, Bakaiku eta

Ispasterren. Ondoren, Oarsoaldean, Hernani, Bermeo, Busturia, Usurbil, Uribe Kosta, Elorriko, Aulestin... eta beste hamaika herri eta eskualde batuko dira geratu ezin leikian olatu horretara. Izan be, Euskal Herrixan erabagi egin nahi dogu. Bidia hasi baiño ez dogu egin eta, aurtengo galdeketak eredu modura hartuta, Euskal Herri osora zabaldu nahi dogu olatua. Eta oindiok gure herrira aillergau ez bada be, haziak ereitten dihardugu, gaur eziñezkua dana bixar posible izateko".

Horregaittik, herritar guztiak gonbidatu nahi dittue "Piztu erabakiaren aroa" ekinbidian parte hartzera, "etorkizuna alkarrekin eraiki bihar dogu. Abian da erabagixaren aroa. Eta gu pausua emotera goiaz".


Erabagitzen hasi gara

Oin dala egun batzuk Donostiako Zurriolan dozenaka lagun bildu ziran herri galdeketa lehen olatua hartzeko. Holan emon nahi izan ebena aditzera erabagitzen hasitta daguzela: "Itsas baztarrian bildu gara olatu bat hartzera goiazelako. Erabagixaren aroan aldarrikatetik gauzatzera pasauko garalako. Eta erabagitzen hasi garalako". Ekaiñerako herri galdeketak 36 herri-



tan egittia eguan aurreikusitta eta hórretako 34tan domekan, ekaiñaren 5ian egingo dira: Goierri (23 herrittan), Debagoienan (8 herrittan), Aramaion, Azpeitian eta Ispasterren. Dima eta Bakaikun, barriz, galdeketak azarora atzeratzia erabagi dabe, "herri galdeketa oin baiño baldintza hobiak eskaintzeko asmuarekin. Zentzu horretan, lehen olatuaren bigarren talka etorriko da udazkenian".

2018ra begira, Eskura-n zehaztutako bidian, ekaiñekua pauso inportantia izango dala diñue eta, norabide horretan, erabagitzeko eskubidiaren aldeko adierazpenak Eibarren ez eze beste hamaika tokittan be egingo dira, "aurrera eginda, erabagixa gauzatzeko adostasunak eraikitzen dihardugu. Galdera, erritmo eta ibilmolde ezberdiñekin, baiña guztiak norabide berian".



Iker Irribarria pilota txapeldunak bat egin dau ekimenarekin.



Ezpalak dantza jaialdia



Erromeria



Musika Bandaren kontzertua



Bertso saio musikatu



Artisauen azoka



Kantu-afaria

Agur Euskal Jaixari



argazki gehiago:
ETAKITTO.EUS

Larrain-dantza



Elkarteen laguntasuna



Kalian Jolasian



Herri kirolak

AGIFES Buru Gaixotasuna Duten Pertsonen eta Senideen Zuzendutako Laguntza eta Arreta elkarteak pertsona hauen bizi-kalitatea hobetzeko lan egiten du eta Gipuzkoan hiru errehabilitazio zentro ditu, horietako bat Eibarren. 2003. urtean Isasi kalean ekin zioten bideari, baina orain dela gutxi Urkizuko dorreetara aldatu dira, horrela lan egiteko baldintzak hobetuz eta espazioa irabaziz. AGIFES-en gaixoak eta senideak laguntzeaz gain, gizartea sensibilizatzea ere badute helburu eta hori lortzeko hainbat ekimen egiten dituzte: zineforumak eta tertuliak, lasterketa solidarioak, hitzaldiak... Gizartetik norbanakora eta norbanakotik familia, esan daiteke elkarteak hainbat esparrutan jardutea lortzen duela, hauen guztien mesedetan.

Garaia, gizartea edota bizimodua aldatzen joan diren neurrian, buru gaixotasunak dituztenen profil zabala ere aldatzen joan da. Adibide bezala, Beatriz Garcia hezitzaileak dio soldadutza izaten zela buru gaixotasun askoren iturburu, baina orain, ordea, beste "diseinuzko droga" batzuk daudela eta, beraz, ez dagoela gaixoen perfil zehatzik. Hala ere, ageriko faktore "detonatzailea" egon arren, horrelako gaitzen atzean eragile asko daudela nabarmentzen du Garciak.

Eibarko errehabilitazio psikosozialerako zentroan bi psikologo eta bi hezitzaile daude lanean. Debabarreneko 18 pertsona biltzen dira bertan, astelehenetik barixakura eta hainbat ekintza egiten dituzte. Helburu bateratu bezala buru nahasmendua dutenen "autonomia eta bizitza normalizatu eramateko gaitasuna" bultzatzea dute, baina bakoitzak bere helmuga propioa ere badu eta gogor egiten dute lan euren lasterketa irabazteko.



AGIFES 30 urte buruko gaixotasuna dutenei laguntzen

Goizeko 9:30ean biltzen dira zentroko psikologo eta hezitzaileak egunero eta eguneko plangintza adosten dute. Ordu erdi geroago, 10:00etan ailegatzen dira erabiltzaileak eta "egun on" izeneko aktibitatearekin aurreko eguneko balorazioa, gaua nola pasatu duten eta zer moduz sentitzen diren elkarbanatzen dute gai-nontzekoekin. Langileen ustez, jarduera oso garrantzitsua da, erabiltzaileek informazioa ematen dutelako eta honek egunaren nondik-norakoaren pistak ematen dituelako. Horren ostean, luzaketak egiten dituzte gorputzaren mantentze-lanetarako. Itsasne Gallastegui psikologoak azpimarratu duenez, kostatu egiten zaie "aktibo jartzea" eta kirolak lagundu egiten du buruko gaitzetan ere. 11:00etan taldea bantzen da eta egun bakoitzean tailer desberdinetan hartzen dute parte: gaurkotasun-debateak, estresaren kudeaketa, prentsa tailerra, psikoheziketa, gaitasun sozialak... Langileek adierazi dutenez,

ekintza guztien bitartez lantzen dira gizarteratzean beharrezkoak diren gaitasunak: "Tresnak ematen zaizkie izan zituzten (baina orain lokartuta dauden) gaitasunak kudeatzeko eta gizarteratzeko".

Ekintza hauek talde lanean egiten dituzte, baina psikologo eta hezitzaileek bakarrikak tutoretzak ere egiten dituzte astero erabiltzaileekin. Gallastegui azaldu bezala, plan indibidualizatu bat dute eta helburu batzuk adosten dituzte, ondoren 6 hilabetetara ebaluaketa egin eta emandako urratsak aztertuko.

Familiaren garrantzia

Buruko gaixotasuna duten pertsonen gain, elkarteak hauen senideei ere laguntza eskaintzen die. Familiak "paper garrantzitsua" jokatzen du buruko osasun arazoak dituztenen arretan eta zainketan. Horretarako "familia esku-hartze eta laguntza programa" daukate eta bertan informazioa, orientazioa, laguntza psikologi-

LEIRE BARBARRUBIO ETXEBERRIA

Gurekin lanean denbora gutxi egon arren, betirako izango zara gure bihotzetan.

BISTA EDER HORTZ-KLINIKAKO LANKIDEAK



koa edota aholkularitza juridikoa eta beselako jarraibideak eskaintzen zaizkie senideei.

Langileek adierazi bezala, senideak dira sarritan laguntza eske jotzen dutenak eta "zer egin ez dakitela" ibiltzen dira. Horregatik nabarmendu dituzte Gallastegui eta Garciak sostengu taldeak eta hauen "lan itzela" goraiatu dute. Psikologoak ia ezinbestekotzat jotzen du buru gaixotasuna dutenen etxean bere jarraipena ezagutzen duen norbait egotea: nola lagundu dakiena, zer egiten duen jarraitzen duena... Bestalde, senideentzat ere guztiz onuragarria izaten dela diote, egoera beretsuan dauden beste senide batzuekin elkartu eta esperientziak elkartrukatzen dituztelako: "Bakarrik ez daudela sentitzen dute".

AGIFES modu honetan, buruko gaixota-

suna jasaten duten senideek euren esperientziak elkar trukatzuz sortu omen zela azaldu digu Garciak. Gaur egun ere, elkar-teen zuzendaritza batzordea senideek osatzen dute eta eurak arduratzen dira sentsibilizazio kanpainez eta gizarte osora zabaltzen diren ekimenez. Soldatarik gabeko boluntario lan hau da, bi langileen iritziz, 30 urteko elkar-teen garapenaren funtsa: "AGIFES-en sentsibilizazio kanpaina guztiek lortu dituzte ikaragarritzko aldaketak eta elkar-teen bilakaeran oso garrantzitsuak izan dira".

Eibarren maiatzean zineforuma abiatu zuen AGIFESek herritarrok sentsibilizatzeko eta "oso erantzun ona" jaso dutela esan dute langileek. Dinamika honetan, gaiarekin modu zuzenean erlazioatutako pelikulak ikusi eta ondoren ikusleek sola-

saldiak egiten zituzten elkarteko psikologoek zuzenduta. Horrez gain, hitzaldiak egingo dituztela aurreratu dute. Hurrengo "Mindfulness" izango da, hilaren 21ean, 18:30ean Tolosako kultur etxean.

Gizartearen erronkak

Buru nahasmendua duten pertsonek egunerokotasunean moldatzeko tresnak badituzte ere, sarritan oztopo nagusi batekin topo egiten dutela adierazi du Garciak: gizartearen zabalduak aurreiritziak.

Gizarteratzeko gaitasunak etengabe lantzen dituzte zentroan: kiroldegira joaten dira, txangoak egiten dituzte, museoak bisitatu, kafe bat hartzera joan... Baina taldean mugitu beharra bera "estigmatizatua dago", hezitzailearen iritziz: "Egun ditugun baliabideekin ezin gara hiruko edo lau taldeetan kalera irten, langile gehiago beharko genituzke". Boluntarioen lana ere garrantzi handikoa dela adierazi dute langileek eta, Eibarko zentroan bakar bat ez badago ere, pozik hartuko lukeela diote.

Esan bezala, gizartea aldatzen badao ere, oraindik aurreiritziak nagusi direla ohartarazten dute psikologo eta hezitzaileak eta horregatik dela hain garrantzitsua sentsibilizazioa eta herritarren lana. Buruko gaitzak jasaten dituzten guztiak batzeko hitz bat, "ahalduntzea" azpimarratu du Gallastegui psikologoak: "Ahalduntzea da guztien helburu bateratua, hau da, bakoitzaren gaitasunez jabetzea eta egin ditzakeen gauzak eginez, egin ezin dezakeena albo batera lagatzea".



Zentroetan buruko gaitzen bat dutenen bizitza kalitatea hobetzera bideratutako jarduerak lantzen dira.

Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

CAPI

LASER DEPILAZIOA 30€

Hanka osoak + Izterondoak 90€

Masajeak



Ipini zaitez sasoi onean
 astero bakarrik
 20 minutu eginez

Powered by **BODY**
Berria!



Gorputz tratamenduak

TEKNIKAK: Kabitazioa / Radiofrekuentzia / MINCEUR

Laser lipolitikoa / Presoterapia / Elektroestimulazioa

5 saioko **BONOAK** / Zona bat: 35 euro saioa



Aurpegi tratamenduak

BETILE LUZAPENAK
 GEL ATZAZKALAK
 IA BETIRAKO
 MANIKURA



- Mikrodermoabrasioa
 - Radiofrekuentzia (zimurrak)
 - Mantxak (BERRIA)

Irati Yarza (Ipurua Gimnasia Erritmikoko taldekoa)

"Garaipena errepikatzerakoan nire helburua betetzea lortu dut"

Irati Yarza gimnastak bere ametsa errealtate bihurtu zuen joan den asteburuan, Gasteizen izandako Gimnasia Erritmikoko Euskadiko txapelketan, bigarren urtez jarraian, irabazle suertatzerakoan. Banaka jardun zuen "senior +" kategorian mazekin eta uztaiarekin, eta bi modalitate hauetan eta sailkapen orokorrean lehenengo postuan gelditzea lortu zuen. Taldeka seniorrekin jardun zuen eta hor 5. postua lortu zuten. Hainbeste urtetan egindako lanaren fruituak dira. Ez da lan makala aldi berean ikasi eta hainbeste ordutako dedikazioa eskatzen duen kirola egitea.



- 18 urte dituzu. Zenbat denbora daramazu gimnasia erritmikoa egiten eta lehiatzen?

Ama eta familia erdia Eibarkoa izan arren, Ermuan bizi gara eta Ermuko taldean hasi nintzen 7 urte inguru nituenean. 12 urterekin hasi nintzen Ipuruako taldearekin. 6 hilabete geroago federatu egin nintzen, taldeetan ibiltzeko. Orduan infantiletan nengoen eta kriston saltoa izan zen. Ez neukan flexibilitaterik ez ezer! Nahiko eskasa nintzen. Espainiako Txapelketara joan ginen jakin barik zer zen. Bi urte infantiletan, juniorretan urtebete... eta gero Lehenengo Kategoriara igo ninduten. 2 urte egin nituen lehenengo mailan, taldea desegin zen arte. Categoria horretan Espainiako 12 talderik onenak egoten dira eta ia ezin nuen sinistu maila horretan nengoela. Ondoren senior + izatera jaitsi nintzen eta hortxe daramatzat bi urte, Euskadi mailan lehiatzen.

- Jarraitzeko asmorik daukazu?

Kirol hau 18-20 urtekin lagatzen da normalean eta batzuk pare bat urte gehiago egoten dira. Azkenean norberaren araberakoa da, ba-

koitzak zenbat denbora eskaintzen dion... Ni orain fisikoki lehen baino askoz hobeto nago. Adinarekin flexibilitadea galtzen duzu normalean, baina nik irabazi egin dut. Lehiaketetan urduri egotea normala da, baina orain ez daukat lehenengo presioa. Ahal denik eta hobeto egin eta ondo pasatzen dut. Batzutan lagatzekotan egon naiz, baina orain ez, aurrera jarraitzeko asmoa daukat.

- Gimnasiaz gain ikasketak ere hor daude. Zertan diharduzu?

Orain buru-belarri nago selektibitateko prestatzen. Hurrengo ikasturtean Leioan kazetaritza ikasteko asmoa daukat. Ikasturte honetan Deustoko ikastetxe baten egon naiz kamara aurreko interpretazioa ikasten. Asko ikasi dut eta oso gustora egon naiz, nire txikitako ametsa aktore izatea izan da-eta.

- Pisia mantentzeko bereziki zaindu egin behar zara?

Nahi beste eta nahi dudana jaten dut. Entrenadoreak ez dit inoiz esan zaintzeko. Pentsa, betidanik, gabe-ro esnea, kolakaoa eta 8 gailera *principe* jaten ditut afaldu ondoren! Elikadurarekin zortea daukat.



Miren Ajuria Ochandiano

I. Urteurrena (2015-VI-4)

*"Zure maitasun eta irriparrarekin gelditzen gara.
Beti gogoan izango zaitugu"*

ETXEKOAK



Azkeneko Selektibitatea

Egun hauetan, liburutegietan inoiz baino ikasle gehiago daude, batzuk Unibertsitateko azterketak prestatzen eta beste batzuk selektibitateko buru-belarri ikasten. Hori dela-eta, herri askotako liburutegietan ordutegi zabalagoa eskaintzen dute. Eibarko liburutegia, esate baterako, maitzaren 9tik uztailaren 8ra arte 09:00etatik 20:30era dago zabalik.

Liburu eta apunte artean ikus ditzakegun hauetako askok selektibitatea egin beharko dute datorren astean, ekainaren 8an, 9an eta 10ean, eta azken egunak urduritasunez aprobetxatzen dihardute filosofia, literatura, matematika, euskara, ingelesa, historia... ikasteko. Aurreko urteetako datuak ikusita, ez da zaila selektibitatea gainditzea (%97-99k gainditzen dute). Zailagoa da, ordea, nahi dituzun ikasketak egiteko puntuazioa lortzea.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 10.000 ikasle egingo dute aurten unibertsitatean sartu ahal izateko gainditu behar den froga. LOMCEk dioena mantentzen baldin bada, aurtengoa selektibitatearen azken urtea izango da. 40 urtetan ezagutu dugun selektibitatearen ordeztu beste froga bat aurreikusten du LOMCEk, Batxillergoko 2. mailaren amaieran egingo den errebalida, hain zuzen ere. Azterketa hau desberdina izango da, test itxurako 350 galdera izango ditu,



Selektibitatea prestatzen diharduten ikasleek urduritasuna eta presioari aurre egin beharko diote.

horietako 200 enborreko ikasgaiei buruzkoak, 100 hautazkoak eta 50 lurralde bakoitzeko espezifikokoak. Ikasten jarraitu ahal izateko derrigorrez gainditu beharko da froga hau, eta ondoren unibertsitate bakoitzak ezarritako betekizunak egongo dira.

Dena dela, ikasle, irakasle, guraso eta errektoreen kexak kontuan hartu dituzte eta, dirudenez, datorren urtean errebalida "flexibilizatu" egingo dute eta gaur egun-

go selektibitatearen antzerakoa izango da. Kristina Uriarte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburuak DBH eta Batxillergoko errebalidak ezabatzea eskatu du Madrilen.

Panorama politikoa eta unibertsitatearen arteko akordioak argitzen diren bitartean, argi dagoen gauza bakarra da Selektibitatearen desagerpenak 40 urte iraun dituen heziketa-etapa baten amaiera ekarriko duela.




Selektibitatea HEZKUNTZA ESPARRUAN

Eibar eta inguruko herrietako ikasleek Eibarko Hezkuntza Esparruan egingo dute selektibitatea, EHUK bertan duen "injenieritzako" eraikinean. Azterketak ekainaren 8an, 9an eta 10ean izango dira, goiz eta arratsalde. Bigarren aukera, aldiz, Donostian izango dute uztailaren 6an, 7an eta 8an.

Eibarren azterketak antolatzearen ardura EHUarena da, eta institutu-ko zein UNI Eibar-Ermuako irakasleek azterketak zuzentzen parte hartu dezakete, horrela nahi izanez gero.

Iñaki Galparsoro García 3. Urteurrena (2013-VI-5)

Beti gure bihotzean *Familiakoek*



Maria Angela: XIX. mendeko emakume liberala



Gaur egun Errebal izena dakan kaliak 1982xan hartu eban izen hori, ordura arteko Maria Angelaren ordeiz. Nor zan, baiña, gure kalietako bati izena emon zetsan emakumiori? Gehixago oindiokan, ikusitta zein gatxa dan gaur egun be emakume batek holako errekonozimendua jasotzia. Oin be Eibarren emakume bakarra dogu kale-izendegixan: Urkin daguan Polonia Etxeberria kaliarena. Proposiziñuak egin dira Mercedes Kareaga be mailla horretara igotzeko.

Gerra karlistetan nabarmendu zan liberal porrokatua izan zan Maria Angela Agirregomezkorta. Emakume hori 1883ko ekaiñaren 10ian hil zan, baiña aurretik 1.500 pezeta emon zittuan gerretan parte hartu eben boluntarixo liberak guztieri afari batekin omenaldixa egitteko. Afarixa bera hil eta hogei egunera egin zan, uztaillaren 1ian, eta bertan erabagi eben bildutako boluntarixuak, aho batez, Maria Angela bizi eta hil zan kaliari bere izena jartzia: Maria Angela deittuko zan eta baita Rabal de Maria Angela. Izen horrekin gogoratu zan kalia mende osuan, 1982xan Errebal izena hartu arte.

Maria Angela Agirregomezkorta, dana dala, Francisco Zuloaga tradizionalistaren alarguna zan eta aurretik, Maria Andres Etxeberria eta Juliana Agirrezabalekin batera, hainbat lur eskatu zetsan Udalari, horretarako milizia liberalari hainbat bidar eskindutako laguntza aitzen emonda Udalak atzeratutako zorrak ordaintzeko prestutasuna agertu zebanian.

Frantziako Iraultzak XIX. mendeko hasieran gure herrixan hainbat enfrontamendu eta aliantza sortu zittuan. Napoleonen inbasiñuak Independentzia Gerra ekarri zeban Espaiñara, 1808tik 1814ra arte iraungo zebana. Industrializaziñuaren hasierarekin bat, nekazarixen lurak lurjota zeguazen eta herri eta hirixetan zorrak besterik ez zan ateratzen. Horko liskarretatik etorri ziran gerra karlistak eta, azken horiekin, helduko ziran hamengo lurretara desamortizaziñua, aranzel babesak eta euskal foruen defenza.

Eibarrek be zorrak besterik ez zittuan Kontentziñuaren Gerraren amaierian eta frantsesak setiatzen Maltzagan bertan. Hori bai, lana bae-

guan herrixan, baita emakumientzat be. Egoeria hobetzen juan zan eta armen produkziñuak gora egin eban elkartruckerako hartuemonak hobetzen juan ziran neurrixan. Gerra, gosia eta epidemixak protagonistan ziran orduko sasoi hartan emakumien inplikaziñua gerretan ez zan arrarua izaten eta holan, 1834ko uztaillaren 28xan Gaspar de Urrieta Eibarko alkatiak Fernando de Zabala general karlistari bialdutako kartian argi esan zetsan, azken honek bi egun lehenago herrixa erasotu eta gero: *“Herriko 14 urtetik 70era arteko gizon guztiak dittue armak, eta beste ehun heroina armatuta dagoz. Eta armatuta ez daguzenak be Zabalak baiño hobeto dakixe fusilla kargatzen”*. Herri maillako emakume liberalak baeguazela erakusten dau horrek, armekin herriko posiziñuak gordetzeko prest. Alkatiaren harropuzkerixak ez zetsan siñesgarritasun gehixegi emoten benetan zeguanari, baiña berez egon zan karlisteri aurre egin zetsan Emakume Boluntarixuen Batalloia. Urrietak berak Maria Cristina erregeña regentiari eskatu zetsan batailloi hori osatzeko baimena. Eta erregeñaren erantzuna be jasotzen da akta liburuetan: *“Eibarko emakumiak lehen be ondo gertzatu dabe euren sexuaren ahultasuna, herrixa kementsu babestu zebanian uztaillaren 26xan”*. Dana dala, gero batalloia osatu ete zan probarik ez dago.

Herriko Eibarko emakumien artian alargunen kolektibuak nahiko indar hartu eban, gehixenen kasuan laguntasnaren biharra zekelako. Holan, Maria Martina Eulari, Vicente Etxebarriaren alargunari, eta haren seme-alaberi biktima moduan laguntza emotia erabagi zan Lehen Gerra Karlistaren amaierian, 1840xan. Josefa Ignacia de Maiztegi “Txorokillera”-ren famelixari be baimena emon zetsen udal gauzak gordetzen ziran esparruak erabiltzeko jai-egunetan. 1858an nafarrerri epidemixa sortu zan herrixan eta Magdalena Ariznabarreta eta Felipa Iraola izan ziran gaixueri laguntzen, holan euren bizitza aurrera ateratzeko. Bizibidia ateratzeko beste emakume askok be gerretan zauritutakuak zaintzen zittuan.



JESUS GUTIERREZ

Alfako proiektuaren 96. urteurrena

Lehen Mundu Gerra amaituta sortu zen Alfa enpresa Eibarren; bera izan zen, 1920an, estatuko lehen kooperatiba produkziaroko. Proiektua UGT-k sindikatu borrokan eta PSOE-k politikan egindako ekimena izan zen: aipatutako biak izan ziren Eibarko langile klasearen erreferente garrantzitsuenak. Behin Gerra handia amaituta, krisiak larri eragin zion gure herriari, eibartarrek kalte horri aurre egiteko inolako giza bermerik ere ez zuelako.

Grebak ohikoak ziren: patroiek beharginaren goseak hauek lanera bueltatuko zuela uste zutelako, eta beharginen bazekitelako haiek ezingo zutela askorik irau armak fabrikatu gabe. Gainera, herriko langileen arteko elkartasunak, eta baita inguruko herrietatik jasotzen zenak, lortu zuten grebek denbora asko irautea.

Hrorregatik, langileek, eurek autonomo bezala, errebolber fabrika egitea erabaki zuten, guzti hori langile autokudeaketari jarraituko zion antolaketa oinarri hartuta. Euren argumentua honakoa zen: ugazabak sindikalistarena egiteko gauza badira, gu ez gara gutxiago izango eta patroia egingo dugu. Horrela sortu zuten *Sociedad Anónima Cooperativa Mercantil y de Producción de Armas de Fuego, Alfa*, 300.000 pezetako kapital sozialarekin.

Ipuruako gimnastek denboraldia agurtzen dihardute

Abetxukon jokaturako gimnasia erritmikako Euskadiko txapelketa amateurrean Ipuruako lau ordezkari amaitu dute denboraldia podiumera igota. Irati Yartzak iaz irabazitako Euskadiko senior + mailako txapela jantzi zuen, egindako bi ariketetan (uztaiarekin eta mazekin) lehenengo postuan amaitu ondoren. Senior A mailan Irene Perez onena izan zen mazekin eta 3.a sailkapen orokorrean. Eta Ane San Martinek seigarren postuan amaitu zuen eta Nahia Bilbao zortzigarren. Jubenil A mailan Lorea Armendarizek

mazekin irabazi zuen eta bigarrena izan zen sailkapen orokorrean. Taldeka eibartarrak bosgarrenak izan ziren.

Eibarko klubeko gazteenek ez zuten zorte bera izan Bilboko Rekalden jokaturako Eskola Jokoetan. Infantil A mailako taldea zazpigarrena izan zen eta, banakakoan, Nahia Gonzalez bosgarrena. Bihar eskola eta amateur mailako denboraldiko azken txapelketak jokatu dira Durangon, kadete mailako Euskadikoak hain zuzen. Iaz Ipuruako kadete B mailako taldea Euskadiko azpitxapeldua izan zen.



Eibartarrak Bilboko triatloian

Osoro anaiek triatloi luzean hartu zuten parte, maila handiko aurkariei aurre eginez. Pello 11.a izan zen eta Txomin 31.a. Bestalde, Delteco Eibar Triatloi Taldeko beste kideek triatloi olinpikoan hartu zuten parte, honako postuetan sail-

katuz: Iker Aranzibia (28.a), Adur Juaristi (29), Enrique Gurezeta (39) eta Ioseba Tamayo (53). Emakumezkoetan, Aitziber Urkiola seigarrena izan zen eta Ane Ziaran 12. postuan iritsi zen helmugara. **Argazkian, Txomin Osoro.**



Abetxukon jardun zuen Ipurua klubeko ordezkariak.

Finalista Eguna bihar Arraten

Klub Deportiboaren egun handiak azken urteotako egitarauari jarraituko dio, aldeketa txiki batekin: oraingoan roll-eski igoera Azitaingo poligonotik egingo dute "frontoi paretik irtenda. Aurten asfalto berria ipini dutela aprobetxatuko dugu; gainera, trafiko gutxiago eta arazo gutxiago izango dugu". Aipaturako igoera hori

10:00etan hasiko da eta aurretik bi mendi-irteera egongo dira: Deportibotik abiatuta 08:15ean eta haur eta gurasoentzat antolatutakoa, 09:00-etan Ego-Gainen autobusa hartuta. Horrez gain, mendiko dominen banaketa egingo da eguerdian, pilota partiduak izango dira eta baita Kezka Dantza Taldearen emanaldia ere.



ABBIE WHITE
ENGLISH SCHOOL

BISTA EDER 7. BEHEA
abbiewhiteenglish@gmail.com 605 693 147
LASTER ZABALIK! MATRIKULATU ZAITEZ!



OPARITU INGELESA ZEURE NEURRIRA!





Posta bidezko botoa

Posta bidez botoa eman nahi baduzu maiatzaren 3tik ekainaren 16ra bitarte Correoseko edozein bulegotan egin behar duzu eskaria.

- 1** Eraman behar duzun bakarra zure NAN originala da.
- 2** Ekainaren 6tik 19ra bitarte zure etxean jasoko duzu beharrezko dokumentazio guztia.
- 3** Ekainaren 22a baino lehen boto-papera gutunazalean sartu beharko duzu (Kongresurako zuria, Senaturako sepia), errolda agiriarekin batera eta posta ziurtatuz bidali Correoseko edozein bulegotan. Bidalketa hau DOAKOA DA.

INFORMAZIO GEHIAGO:
EGUNERO 10:00 – 12:00; UDALETXEKO EH BILDUREN BULEGOTAN
ASTELEHEN, ASTEZKEN ETA OSTIRALETAN 18:00 – 20:00 ALKARTETXEAN
KONTAKTURAKO TELEFONOA: 626548327

Hiru txirloko egun handia bihar Bergaran

Gipuzkoako txapelketaren azken jardunaldia jokatuko da bihar Bergaran eta, ohikoari jarraituta, txapelketaren amaierarekin batera Bolari Eguna ere ospatuko dute. Hori dela-eta, aurreko jardunaldietan 17:00etan jokatzen zuten tiraldia bihar eguerdiko 12:00etara aurreratuko da, izan daitezkeen berdinketa edo "parrekoak" jarraian erabakitzeko. Behin Gipuzkoako 47. txapelketa amaituta bazkaria egingo dute San Xosepe elkartean eta hor, ohikoa denez ere, bi lagun omentzeko aprobetxatuko dute: oraingoa Carlos Zengotitabengoa eta Javier Astigarraga izango dira omenduak. Bazkal ostean, bestalde, maila guztietako txapeldunek euren saria jasoko dute.

Aurreko zapatuan Soralezeko San Andreseko bolatokian jokatutako azkenareko jaurtialdian elkarte horretako Iñaki Burunza eta Lasturreko Luis Guenaga nagusitu ziren, zazpi txirlorekin. Hala ere, Ganix Rodriguez eibartarrak sei txirlo etzan zituen eta bera izan zen abantaila gehien ateratu zuena. Une honetan, azken jardunaldiari begira, sailkapeneko lidergoan dugu 33 txirlorekin. 31 bota dituzte San Migueleko Jabier Osorok eta Xabier Loiolak, 30 Gorka Etxanizek (Floreaga) eta Unai Loiolak (San Miguel), eta 29rekin daude Asola Berriko Mikel Urkia eta Bittor Astigarraga. Urkiak bikain hasitako txapelketari erreleboa hartu dio azken jardunaldie-



Iñaki Burunzak irabazi zuen Soralezeko San Andresen, baina Asola Berriko Ganix Rodriguez da nagusi sailkapen orokorrean.

tan Ganixek, txapela janzteko azken hau hautagai nagusia bihurtuz.



Haritzakoak Elgoibarko eta maila igo zuten Donibaneko taldekoekin.

Haritza Eibar eskubaloia maila igotzetik gertu izan zen

Bikain jardun zuten eibartarrek Muskizen eta etxean jokatzen zuen taldeari gauzak estu jarri zizkieten, bi segundoren faltan bizkatarrek lortutako golarekin erabaki zen partiduan. Eibartarrak, gainera, aurretik joan ziren partiduen une askotan; hori bai, atsendaldira aurkako 10-9koarekin erretiratu ziren. Hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partiduan, bestalde, eibartarrak erraz nagusitu zitzaizkien Gabaz Elgoibarkoei (29-22). Azken ligaxkan baino askoz ere maila altuagoa erakutsi zuten, beraz, Haritzakoek Muskizen eta, datorren denboraldiari begira, 2. Nazionalera maila igotzea itxaropenez ikus dezakete.

Denboraldia agortzen doan honetan, bihar arratsaldean, 18:00etatik aurrera, Avia Eibar Eskubaloiko emakumeek Bera Berako senior taldea hartuko dute lpuan.

Eibarko squash taldea Euskadiko azpitxapeldun

Maiatzaren 20 eta 21eko asteburuan Sestaon jokatutako taldekako Euskadiko squash txapelketan Eibarko Klub Deportibok bi talde aurkeztu zituen. Sergio Salgadok, Miguel Cabanillasek eta Alberto Ferreirok, Jon Losadarekin batera, osatutako B taldeak finalean Benedikta A taldearekin galdu zuen 2-1 eta, horrela, azpitxapeldun geratu zen. Oscar Ferreirok, Asier Manzanok eta Xabi Gorosabelek osatu zuten A taldea, bestalde, hamargarren sailkatu zen. Ekainaren 17/18ko asteburuan Eibarko klubak urtero San Juan jaien bueltan antolatzen duen Euskal Ligako txapelketaren edizio berria ekarriko du lpuara. Squash-eko euskal ranking-erako baliagarria izango den lehiaketa gizonetzkoen, emakumezkoen eta infantil mailetan jokatuko da eta, hor parte hartzeko, izena hilaren 12a baino lehen eman beharko da.



EL TIO PALANCAS

Eskerrik asko bezero guztioi eta, batez ere, 10 urte hauetan gurekin hazten joan zareten gazteoi. Ea beste hainbeste egiten ditugun elkarrekin!!!

AUPA ZUEK!!!

JUAN GISASOLA, 8 665 70 20 82

Radio Eibar

CADENA SER

104,0 FM

Izadi

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Caelo Memoriale jokatu da domeka eguerdian.



Udaberri Torneoko final laurdenak gaur Astelenan

Udaberri pilota torneoko lau eta erdiaren barruko txapelketa azken fasea gerturatzeko eta gaur Astelena helduen mailako final laurdeneko bi partidu jasoko ditu. Arratsaldeko 19:15ean hasiko den jaialdian Eibarko Klub Deportiboko ordezkari bi izango dira aurrera egiteko asmoz: Lantzek Iñarra bergararra izango du aurkari eta Agirresarobek Agirre legazpiarra. Infantiletako errendimendu mailan, bestalde, Azkargotak eta Tajuelok osatzen duten biko-

teak Olaberrian jokatu du gaur 19:45ean Udaberri torneo bereko final zortzirenetako binakako partiduan.

Horrez gain, Deportiboko pilotariak Caelo Memorialean ere izango dira domekan ospatuko den Klub Deportiboko Finalista Eguneko egitarauaren barruan. Arrateko santutegiko frontoian Camina/Tajuelo eta Azkargorta/Sanchez infantil mailako bikoteen arteko norgehiagoka izango da 12:00etatik aurrera.

Eibar FT-ko harrobia Euskadiko Kopan

Jubenil mailako Eibar Urko Euskadiko Kopako finala jokatzetik gertu dago finalerdietako lehenengo partiduan Santuxuri 0-2 irabazi eta gero. Golak Josek eta Josuk sartu zituzten eta eibarrak nagusi izan ziren partidu guztian. Jubenil mailako B taldeak, bestalde, 6-8 irabazi zion orain Bizkaiko Ohorezko Ligara igo berri den Abadiñori lagunarteko partiduan.



Bestalde, emakumezkoen 2. Mailan jokatu duen Eibarrek ere Euskadiko Kopako finalerdia lortu ditu. Baja askorekin joan ziren eibarrak Barakaldora eta, hala eta guztiz, Pauldarrak kanporatu zuten penaltietan. Partidua bana amaitu zen eta eibarraren gola Iratik egin zuen, baselina bati esker. Finalerdietan Getxoko Bizkerre izango dute aurkari Unben: bizkaitarrek hirugarren postuan amaitu dute Euskal Ligan.

Galdaramiñoko mendi lasterketa hilaren 12an

Datorren domekan, goizeko 09:30ean hasita, Galdaramiñoko mendi lasterketaren 8. edizioa jokatu da. Urki auzoko jaien barruan antolatzen duten lasterketak 18 kilometro ditu eta 925 metroko desnibela gaitzitu beharko dute parte-hartzaileek. Izen-emateak kirolprobak-com helbidean egin daitezke eta baita lasterketaren egunean bertan ere.



giltzak
SEGURIDAD



Segurtasun handiko ate berriak betiko profesionaltasunarekin.

Zatoz eta informa zaitez!

www.innmotion.es/puertasdeseguridad

Arragueta, 3 - Eibar

943 70 13 91



Funeraria·Ehortzetxe


Mugica

EIBAR



Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko
erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra

☎ **943 20 19 51**

www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze
Taldea

GRUPO
Funeuskadi



IBON ARANBERRI (MAKINA ESKUA DA)

- Jendeak zelan kolaboratu dezake proiektuarekin?

Asmoa da behinola Eibarren uda partean antolatzen zen 'ariketa' erakusketa haien antzekoa egitea. Erakusketa mota hori Armeria Eskolako tradizioetik dator, batez ere. Kasu honetan Armagintzaren Museoa kokatuko dugu egitura. Horrela, bi erakusketa mota gurutzatuko dira bertako espazioan: bertan den gaur egungo bilduma didaktikoa eta garai bateko 'ariketen' pilaketa. Horretarako, Eibar eta ingurukoengana jo dugu, asfaltik inork gordeta dituen 'doitze ariketak', 'tornu ariketak' eta 'fresadora ariketak' mailagutuzan uzteko erregutuz. Armeria Eskolako ikasle ohiengana jo dugu

batetik, baina ahalik eta multzo ugariena erdiestea da gure gogoia.

- Erakusketa noiz zabalduko da eta noiz arte iraungo du?

Erakusketa domekan, ekainaren 5ean, zabalduko da. Erakusketa baino eraikuntza prozesua izango da aurreneko parte, museoa bertan eta bisitagarri, egitura garatzen doan heinean. Jendearen laguntza eta parte-hartzea behar dugu hemen. Gero, uztailearen 29rako dago aurreikusita emaitzaren inaugurazioa. Ondoren, irailaren 16ra arte izango da erakusketa gisa zabalik.

- Ikusleari zer ekarriko dio industria eta teknologiaren arteko lotura horrek?

Eibarko garapen industrialak badu be-

rezitasunik. Bailara berean ematen da transformazio osoa, antzinatek hasita. Garai berrietan, bestelako ekoizpen motetara egokitzen da armagintzaren industria. Horrela, jatorriz armagintzatik datuzen teknika, forma eta hizkuntza estetikoak, industria zibileko bestelako objektuetara eramaten dira. Gaur egungo makina ekonomiaren abiapuntua armagintzan legoke. Agerraraziko ditugun pieza edo ariketek oraindik funtzionalitate zehatzik bereganatu gabeko egoerak adierazten dituzte. Orokorrak diren geometriak, armagintzaren jakintzarako asmatuak hasiera batean, ekoizpen orokorrako baliatuak ondoren. Denbora eta leku paisaia eratzen digute, eskala txikian.

"Gure 'ariketa' erakusketak Armeria Eskolako tradizioan du oinarri"

Donostia 2016 egitarauaren barne garrantzi berezia duen "Bake Ituna" erakusketaren adar gisa eratu da "Makina eskua da" proposamena, "Aldiriak" izeneko atalaren baitan hain zuzen ere. Zazpi artistei eskatu zaie ekarpen berria sortzea, tartean Ibon Aranberri Eibarren jaiotako itziartarrari: "Nire nahia izan da asmoa Eibarren kokatzea, Donostiarekiko. Bata hiri burges gisa ulertzen den heinean, lantegi-hiria litzateke bestea. Modernitateak sortutako kontraktasun horretan, bertako kultura materiala nahi izan dut arakatu, zehazki garai batean landu izan diren tailerreko 'ariketetara' iritsiz".



130 lagun Kaleetan Kantuz

Bihar eguerdian, 12:00etan Kaleetan Kantuz abesbatzaren ikasturte amaierako kalejira abiatuko da Untzogatik. Orain dela 10 urte sortu zen Kaleetan Kantuz taldearekin batera, biharko kantu kalejiran Musika Eskolako ikasleek eta Aretxabaleta, Arrasate eta Elgoibarko taldeetako lagunek ere hartuko dute parte eta 130 bat lagun batzea espero dute, goiz osoa kantuan emateko. Besteak beste "Egusentia", "Jaiki jaiki", "Vamonos de Nueva York" eta beste kantu batzuk abesteko asmoa dutela aurreratu dute, euren kantuan egitera animatzen diren guztiak ondo hartuko dituztela gaineratuta.

Guraso Berbalagunek ikasturtea agurtu dute

Aurreko barixakuan, Guraso Berbalagunak egitasmoan parte hartzen diharduten gurasoek agur esan zioten ikasturteari. Arratsaldean seme-alabekin batera egindako tailerrean gominola-lore politak prestatu zituzten, loreontzi eta guzti. Eta iluntzean afarimerienda gozoarekin agurtu zuten ikasturtea. Dena dela, oporrak hartu aurretik, beste ekintza bat antolatuko du...eta kitto!-k Gurasoak Berbetan egitasmoaren barruan: ekainaren 16an, eguena, Plaza Bete Poz ikuskizunarekin gorputza eta mingaina dantzan jartzeko aukera izango dute ume zein helduek Urkizuko parkean, arratsaldeko 17:00etatik aurrera.





Azalaren zainketari buruzko hitzaldia

Datorren astean, martitzenean "Azala zaintzea: Osasun kontua" izenburuko hitzaldia emango du Farmalur-eko Zalao Otadui, 19.00etatik aurrera ...eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzan (Urkizu, 11 solairuaratan). Iaz egindakoaren bidetik, eguzkiaren alde on eta txarrei buruz jardungo du eta, eguzkiak azalean eragiten dituen kalteak azaltzeaz gain, eguzkitik modu egokian babesteko aholkuak ere azalduko ditu.



Garaguneko lanak Untzagan ikusgai

Astelehenetik aurrera eta hilaren 13ra arte, Goyeneche Fundazioaren Garaguneko kideek egindako eskulan eta margoak ikusteko aukera izango da Untzagako jubilatuetxean. Erakusketa astelehenetik barixakura zabalduko dute, 19:15etik 20:30era.



Dibujo eta Zeramika ikasleen erakusketa

Dibujo eta zeramika eskolako ikasleek ikasturte amaierako erakusketa zabaldu zuten atzo Portalean. Kurtsoan zehar eskolako ikasleek egindako lanekin osatutako erakusketa hilaren 17ra arte egongo da zabalik, egunero 18:30etik 20:30era. Bestalde, eskola bietan matrikulatzeko epea zabaldu berri dute. Adinaren arabera talde bi egongo dira bai Dibujo Eskolan baita Zeramika Eskolan ere, bat 8-12 urte bitartekoentzat eta bestea 13 urtetik gorakoentzat. Irailaren 7ra arte egongo da izena emateko aukera eta matrikula guztiak Pegoran tramitatuko dituzte. Informazio gehiagorako Pegoran galdetu daiteke edo, bestela, 943708435 telefonora deitu.

Artelanak merke-merke Topalekuan

Gaurtik hasita hilaren 19ra arte ume errefuxiatuei laguntzeko expo-outleta hartuko du Topalekuak, Hotz Bergararen ekimenez. Erakusketa Eibarko zein kanpoko artistek emandako artelanak bildu dituzte, prezio berezian, %50 eta %70 bitarteko beherapenarekin salgai ipintzeko. Asteburuan 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara zabalduko dute; astelehenetik eguaztenera, berriz, 18:00etatik 20:00etara; eta eguen eta barixakuetan, 19:00etatik 21:00etara. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete proiektuan parte hartu duten guztiei, "batez ere lanen bat oparitu diguten artistei". Orain herritarrak Topalekura, erakusketa ikustera joatera animatu nahi dituzte, "gustoko artisten lanak prezio solidarioan eskuratzeko aukera bikaina delako".



UEU-ko udako ikastaroetarako izen-ematea

UEU-ren 44. Udako Ikastaroen harira 30 jarduera, 23 ikastaro eta 7 jardunaldi antolatu dituzte. Eibar, Iruñea eta Baionan ez ezik, aurten Donostian, Bilbon, Bidarten, Noainen eta Zumaian ere eskainiko dira ikastaroak. Betiko moduan eskaintza zabalago dago aukeran eta izena emateko epea zabalik dago (ikastaro bakoitza hasi baino astebete lehenago itxiko da). Informazio gehiagorako ueu.eus webgunera jo, 943 821426 telefonora deitu (Irati Iciar) edo i.iciar@ueu.eus helbidera idatzi daiteke.



Kontzertua Belekun

Bihar 20:30ean La Chula Potra-k kontzertua emango du Beleko tabernan. Iruñean bizi den rapeatzaileak "Poeticamente incorrecta" lana zuzenean aurkezteko emanaldia eskainiko du.



EKHI BELAR

Kanpaina jo

Zelako gozamen! Hau plazerra! Sentitu daiteke berriz ere desira, maite gaituztela, behar gaituztela, gure premia dutela. Utziko gaituzte, beste behin, zirrikitutik sartzen. Hori da euren nahia. Berdin zaie aitzinsolasak eta, okerragoa dena, berdin zaie ondorengoa. Bada, erakarri gaitzate orduan. Duintasuna mantentzen saiatuko gara oraingoan, baina zaila da horrelako erakargaritasunen aurrean. Gustatu zitzaigun abenduan, beti gustatu izan zaigu, nahiz eta gerora trapu baten antzera erabili izan gaituzten. Baina beti erortzen gara euren sareetan. Boterearen erotika. Ezin ezetzik esan. Desiratuak izatea maite dugu, begietara begiratzen gaituzte eta sinesten diegu. Tentelak gu. Orain sedukzio sasoia hasiko da. Orain ikusiko gaituzte ederren. Orain botako dizkigute lore eta hitz gozoak. Orain entzungo gaituzte. Orain esango digute baietz eskatzen diegun guztiari, baita fantasia arraroenei ere. Ilusioz beteko gaituzte eta ezinezkoak promestu. Eta sinestuko diegu. Itsu gaudelako. Plazerrez itsu. Etorkizun gozagarri eta maitatua nahi izanagatik itsu. Gozamenaz oihukatu nahi dugulako. Behingoz. Erabili eta bota. Gure ilusioak paperontzira jaurtiko dituzte, beste milaka ilusioekin batera. Milioika bihotz apurtu udako ezinezko maitasunaren albo kalte. Beti bezala. Eta zer geratuko zaigu? Norberarenganako maitasuna.

Mogel Isasiri saria "Kerik gabeko gelak" egitasmoan

Martitzenean, Tabakoaren Kontrako Nazioarteko Egunean banatu zituzten udaletxean "Kerik gabeko gelak" programaren barruan antolatutako lehiaketako sariak. Tabakoaren kontra ikasleekin lantzen diren ekimenen harira urtero egiten den diseinu-lehiaketan aurten Mogel Isasi ikastetxeko Eneko Trebiñok eta Unai Solagaistua aurkeztutako marrazkia saritu du epai-mahaiak eta irabazleek pozarren jaso zuten saria, euren marrazkiarekin atera dituzten kamisetak soinean jantzita zituzten lagunek inguratuta. Ekitaldian azaldu zuten, "12-14 urte bitarteko gazteekin ikasgela lantzen den ekimena Europa mailako programa baten barruan dago eta aurten Eibarko ikastetxe bik, Mogel Isasik



Irabazleek euren ikastetxeko eta Aldatzeko lagunak izan zituzten aldamenean.

eta Aldatzek hartu dute parte lehiaketan. Gela guztiek gutxienez diseinu bana aurkeztu dute eta Eibarko gazte biek egindako hau aukeratu dute saria jasotzeko". Lore Trebiño tutoreari ere ustekabea saria eman zioten eta ikasgelei diplomak banatu zizkieten. Gipuzkoan 24 ikastetxetako 2.400 ikaslek hartu dute parte lehiaketan eta EAE mailan, berriz, 7.500 ikaslek.

Ekitaldian Idoya Sarasketa Gizartekintzako zinegotzia, Miren Dorronsoro Osasun Publi-

koko eta Menpekotasunetako zuzendaria, Elena Albisua Osasun Publikoko zuzendariordea eta Juanma Suanzo Debabarreneko OSlaren mediku zuzendaria izan ziren eta ekitaldian erretzeak osasunari eragiten dizkien kalteak gogora ekarri nahi izan zituzten: "Euskadin hiltzen diren 100 lagunetik 12 tabakoa erretzeagatik hiltzen dira. Urteak urtera gero eta erretzaile gutxiago egon arren, baina, salbuespena neskak edo emakumeak dira".

La Flor eta Goruntz abesbatzen kontzertua

Goruntz abesbatzak Pola de Lenako (Asturias) La Flor abesbatzarekin batera kontzertua emango du bihar, 20:00etatik aurrera San Andres elizan. Iazko azaroan eibartarrek Pola de Lenan egin zen abesbatzen topaketan parte hartu zuten, hango abesbatzak gonbidatuta eta biharko emanaldiarekin gonbidapen horri erantzun nahi izan diote. Goruntzeko kideek azaldu digutenez, "La Flor abesbatza Asturias eta Espainia osoan zehar ez ezik, mundu osoko Asturiasko Etxeetan ere kantuan ibilitakoa da. Errepertorio oso zabala dauka, erlijio-musikarekin hasi eta abesti herrikoieneraino doazen kantuek osatutakoa". Biharko emanaldirako estilo anitzeko abestiak aukeratu dituzte, kantu asturiarrak, tangoak eta habanerak tartean direla. Eibartarrek, berriz, euskal kantuak eta habanerak eskainiko dituzte. Emanaldia agurtzeko, biek elkarrekin Mikel Laboaren "Txoriak txori" abestuko dute, Javier Bustoren konponketekin.



Ekaineko argazki erakusketak

Argazkilaritzak bete duen maiatza agurtu berri, Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoek erakusketa berriak prestatu dituzte ekainerako. Hilaren 30era arte Angel Martin-en lanak Ambigu tabernan ikusgai izango dira. Portalea tabernak, berriz, Pedro Arriolaren argazki-erakusketa hartuko du. Eta Klub Deportiboaren tabernan AFTDAO taldearen erakusketa kolektiboa, "El Mirall del Temps" izenburuko ikusteko aukera izango da.



Bertso jaialdia SORALUZEN

Pil-Pileanen XX. urteurrena dela eta, bertso jaialdia egingo da gaur gauean Soralezeko Herriko Antzokian, 22:15ean, Amets Arzallus, Jon Maia, Oihana Iguaran eta Beñat Gaztelumendirekin (sarrerak 6 euro balio du alde zurrerak 8 euro, berriz, gaur lehiatzen erositzen gero).



"Chirigota Solidarioa" ERMUAN

Isekin elkarteak "Chirigota Solidarioa" antolatzen du biharko La Factoria (Cadiz) taldearekin. Saioa Ermuko Antzokian izango da, 22:00etan. Horrekin batera, Eibarko tabernariak emandako laguntza eskertzeko, zapatu eta domekan Eibarren kalejira ibiliko dira 11:30ean eta 15:00ean (Isasi, Estaziño, Errebal, T. Etxebarria, Untzaga eta Ego Gain kaleetan).

2016 Bidearen etapa ELGOIBARREN

Donostia 2016 Europako kultur-heriburutzak eta Elgoibarko Morkaiko mendi taldeak elkarlanean antolatutako 2016 Bidea egitasmoa 11. etapa Elgeta eta Elgoibar mendiz mendi lotuko ditu domekan. Horren harira, ekintza kultural bi izango dira: 09:00etan, antzetzutako bisita gidatua egingo dute Eibarren Antzintxiketan eta Ikasten konpainiek. Eta etaparen amaieran, Aitor Novaren "Kataiak", ordu erdiko ikus-entzunezkoa eskainiko dute Elgoibarko Herriko Antzokian, 16:30ean.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Antonio Martinez Ruiz. 88 urte. 2016-V-18.
- Miguel Zarrabe Ansola. 93 urte. 2016-V-26.
- Pedro Muñoz Urzelai. 90 urte. 2016-V-27.
- Juan Fernandez Salgado. 81 urte. 2016-V-27.
- Matilde Martinez Lanza. 85 urte. 2016-V-29.
- Benito Jauregi Albizuri. 91 urte. 2016-V-30.
- Leire Barbarrubio Etxebarria. 43 urte. 2016-VI-1.

jaiotakoak

- Malen Hernaltes Garcia. 2016-V-27.
- Gaizka Cabanzon Ruido. 2016-V-28.

farmaziak

- Barixakua 3
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Zapatua 4
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
- Domeka 5
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Astelehena 6
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Martitzena 7
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Eguaztena 8
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
- Eguena 9
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Barixakua 10
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)

GAUEZ BETI - 2016AN- Iraundegi (Calbeton, 19)

SUDOKUA

7				4		3	
				8	1	6	
9		5					
8			5			9	
3	6		9	7		2	5
	5		2				1
				9			3
	9	8	1				
	7		8				2

7	1	9	3	5	2	4	8	6
3	5	8	9	6	4	7	1	2
4	6	2	7	1	8	5	9	3
5	8	1	6	3	7	9	2	4
6	2	4	5	8	9	3	7	1
9	3	7	4	2	1	8	6	5
2	4	5	8	7	6	1	3	9
1	7	3	2	9	5	6	4	8
8	9	6	1	4	3	2	5	7

AURREKOAREN EMAITZA

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 3

GAZTELEKUA

17:00. Udako pultserak eta apaingarriak. Indianokuan.

ZINE-FORUMA

19:00. "Pride" ("Orgullo")-ren inguruko zine-foruma, Pagatxa elkartearen eskutik. Dinamizatzaila: Izaskun Rodriguez Elkoro. Portalean (areto nagusian).

DANTZA

20:00. "Birakapower!!! Gure indarra!" ikuskizuna, Biraka Dantzaren eskutik. Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

Zapatua 4

KIROLA EUSKARAZ BIZI

08:00. XIX. jaialdia, Iturburura joateko garraio zerbitzuaren hasiera: Untzaga-Iturburu / Urkizu-Iturburu. 10:30, 12:30 eta 13:30: Untzaga-Iturburu. **18:30.** Itzulera garraioa.

KALEETAN KANTUZ

12:00. Abesbatzaren ikasturte amaierako kalejira, Musika Eskolako ikasleekin eta Aretxabaleta, Arrasate eta Elgoibarko taldeetako lagunekin batera.

URKIKO JAIK

17:00. Esku pilota. Arrateko Andra Mari ikastetxean.

GAZTELEKUA

17:00. Udako pultserak eta apaingarriak. Indianokuan.

LEHIAKETA

19:00. "Trompos Cometa" lehiaketa. El Corte Inglesean.

KONTZERTUA

20:00. La Flor (Pola de Lena, Asturias) eta Goruntz abesbatzen kontzertua. San Andres elizan.

GURE ESKU DAGO

20:00. 'Piztu erabakiaren aroa' ekimena: umeendako tailerrak, makillajea, zuzeneko musika, bertsoak... Materiala salgai.

21:15. 'Gure Esku Dago' esaldia kandlekin osatu eta piztea. Untzagan.

Domeka 5

FINALISTA EGUNA

08:30. Mendi ibilaldia, Deportibotik abiatuta. **09:00.** Ibilaldia haur eta gurasoentzako. Autobusa Ego-Gainetik doan. **10:00.** Roll-eski igoera. Azitaindik. **11:30.** Sari-banaketa eta luntx-a. **12:00.** Caelo Memoriala pilota jaialdia. **12:30.** Mendiko dominen banaketa.

TOPAKETA

12:00. 'Makina eskua da' proiektuaren inguruan. Armagintzaren Museoa.

GAZTELEKUA

17:00. Play/Wii. Indianokuan.

Astelehena 6

MUSIKA EMANALDIA

17:30. Musika Eskolako ikasleen ikasturte amaierakoa. Portalean.

Martitzena 7

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra. **17:00.** Joskintza tailerra. Portalean.

MUSIKA EMANALDIA

17:30. Musika Eskolako ikasleen ikasturte amaierakoa. Portalean.

HITZALDIA

19:00. "Azala zaintzea: osasun kontua", Farmalurreko Zalao Otaduy-ren eskutik. ...eta kitto!-n.

GURE ESKU DAGO

19:00. Bilera irekia. Arrate Kultur Elkartearen.

DANTZA

19:30. Eibarko Dantza Garaikide taldea. Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

Eguaztena 8

IKASTEN

08:10. Ibilaldia: Zumaia-Deba. Trenaren irteera ordua Ardantzatik (08:12ean Estaziñotik).

MUSIKA EMANALDIA

17:30. Musika Eskolako ikasleen ikasturte amaierakoa. Portalean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Entsegua. San Andres elizan.

DANBORRADA

19:00. Umeen entsegua. **20:00.** Helduen entsegua. Beistegi eraikinean (Bittor Sarasketa, 7).

DANTZA

19:30. Eibarko Dantza Garaikide taldea. Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

Eguena 9

BILERA

06:45/09:00. "Business Networking International Armagin" ekimenarena, enpresa txiki/ertaintzat. El Corte Inglesean.

ODOL-ATERATZEA

18:30. Emaileentzat saioa, Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartearekin. Anbulatorioan.

BILERA

19:00. Kaleratzeak Stop Debabarrena. Portalean.

AMAÑAKO DANBORRADA

19:00. Umeen entsegua. **20:00.** Helduen entsegua. Amañako ikastetxean.

DANTZA

19:30. Eibarko Dantza Garaikide taldea. Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

KALEETAN KANTUZ

19:30. Entsegua. San Andres elizan.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

4an: 19:45, 22:30

5ean: 20:00

6an: 20:30

"Noche real"

Zuzendaria: Julian Jarrold



(2 ARETOAN)

4an: 17:00, 19:45, 22:30

5ean: 17:00, 20:00

6an: 20:30

"Acantilado"

Zuzendaria: Helena Taberna



(ANTZOKIAN)


4an: 17:00(1), 19:45, 22:30

5ean: 17:00(1 Aretoan), 20:00

6an: 20:30

"Warcraft. El origen"

Zuzendaria: Duncan Jones



(ANTZOKIAN)

4an: 17:00

5ean: 17:00

"Alicia a través del espejo"

Zuzendaria: James Bobin




Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, GAEL, sagutxo! zure lehen urtebetetzian! Gure bizitzako urterik onena! Aittak eta amak asko maitte zaittugu.



Zorionak, ENEKO!, astelehenian 9 urte egin zenduazuen-eta. Musu haundi bat etxequon eta, batez be, Telmoren partez.



Zorionak, UNAX, martitzenian lau urte beteko dozuz-eta. Ondo pasa eguna eta musu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, IZARO, astelehenian 9 urte eder beteko dozuz-eta. Laztan potolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IZARO Bereziartua, domekan 8 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat aitxitxa, amama eta osaba-izekuen partez.



Etxeko txikixa ez da hain txikixa, gaur bost urte egin diitu-eta! Zorionak, MARTXEL!!! Patxo potolo asko! Baita munak be!




Zorionak, MAIDER, haraiñegun hiru urte egin zenduazuen-eta. Musu haundi bat etxeke guztien partez.



Zorionak, IRATI Blanco, gure printzesak gaur sei urte betetzen diitu-eta. Musu haundi bat etxeke guztien partez.



Zorionak, ANDER, domekan 11 urte egingo dozuz-eta. Besarkada haundi bat etxeke guztien partez.



Zorionak, MAITE, atzo bi urte bete zenduazuen-eta! Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Juliaren partez!!!



Zorionak, ANTON, atzo urtetxua egin zenduan-eta. Etxeko guztien eta, batez be, Sabinaren partez.



Zorionak, MARA, gure etorri barrixa. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, KATRIN, gaur zazpi urte egitten dozuzelako. Patxito haundi bat guztien partez.



Zorionak, NAROA!, eta oso ondo pasau zure egunian. Patxito pillua danon partez.



Zorionak, MARKO, bixar bost urte beteko dozuz-eta. Laztan haundi bat etxequon eta, batez be, Telmoren partez.



JUNE!, haraiñegun bi urte bete zenduazuen-eta.. Musu potolo bat etxequon partez.




Zorionak, MADDI, hillaren 7xan 12 urte egingo dozuz-eta. Famelixakuen partez.



Zorionak, ASIER, bixar zure eguna dalako. Famelixakuak desiatzen gagoz bihar dan moduan ospatzeko.



Zorionak, PAULA (martitzenian 10 urte bete zenduazuen) eta aitxitxa MIKEL (atzo zure eguna izan zan). Etxeko guztien partez. Maitte zaittuegu.



Zorionak, JON, lau urte honezkeror! Patxito mordua MARTIN, aitta eta amaren partez.



Zorionak, JOSE MARI. Ondo ospatu zure eguna. Asko maitte zaittuen zure famelixa guztiaren partez.

Erakusketak

Ekainaren 17ra arte:

– Margo, Marrazketa eta Zeramika udal eskoletako ikasleen ikasturte amaierakoa (**Topalekuan**)

Ekainaren 19ra arte:

– Ume errefuxiatuen aldeko “expo-outleta” (**Topalekuan**)

Ekainaren 30era arte:

– “El Mirall del Temps” (AFTDAO kolektiboa)-ren argazkiak (**Klub Deportiboan**)

– Angel Martinen argazkiak (**El Ambigú tabernan**)

– Pedro Arriolaren argazkiak (**Portalea tabernan**)

Ekainaren 6tik 13ra:

– Goyeneche Fundazioko Garaguneko kideen eskulan eta margoak (**Untzagako jubilatutuean**)

Abenduaren 22ra arte:

– Jose Luis Apraizen arma-bilduma” (**Armagintzaren Museoa**)

i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 660-047305. Belen.
- Pisua hartuko genuke alokairuan Lekeitiñon abutzurako. Erdigunean egotea eta igogailua izatea ezinbestekoak. Tel. 605-730388. Lurdes.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Lokala salgai edo alokagai jubilazioagatik. Estetika zentro moduan prest. Tel. 665-344815 eta 943-702854.

3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Eibar erdialdean (Txomo eta Abontza artean). Tel. 617-688311.
- Lokala alokagai Ubitxa inguruan, kalera irteera zuzenarekin. Bulego, biltegi edo tailer txikiarendako aproposa. 70m²/150m². Tel. 617-688311.
- Garajea alokagai Estaziño 13an. Marraduna eta zabalera handikoa. Tel. 943-203741.
- Marxan dagoen ilepaindegia alokagai Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 638-515953.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka eta asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 679-910991.
- Emakumea eskaintzen da 09:00etatik 17:00etara lan egiteko. Tel. 634-446252.
- Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Ordutegi zabalak. Tel. 688-718002.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaintzeko eta pegorak edo soziedadek garbitzeko. Esperientzia. Tel. 638-421827.
- Neska euskalduna eskaintzen da ekainean eta uztailean umeak zaintzeko. Tel. 680-923291.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 631-417922.

- Mutila eskaintzen da etxeko etxe erroa garbitu eta lehertzeko (edredoiak, izarak, gortinak, mahai-zapiak), oinetakoei distira eman eta erosketak eta enkarguak egiteko. Tel. 632-559812.
- Neska euskalduna eskaintzen da pegorak eta soziedadek garbitzeko. Tel. 617-571210.
- Neska eskaintzen da pertsonak zaintzeko, baita gauz ere. Esperientzia. Tel. 616-281931.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 634-709827.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Esperientzia. Tel. 616-457254.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 637-191397. Aida Patricia.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako. Tel. 678-112785.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko ekainean edo uztailean. Tel. 635-506898.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka edo gauz. Umeak opporretan zaintzen ere esperientzia. Tel. 633-808931.
- Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 699-252962.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko garbiketarako. Esperientzia. Tel. 608-376387.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 645-007388.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako. Tel. 632-573554.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako. Tel. 632-472167.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 681-065683.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 626-197217.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Esperientzia dendaria moduan. Tel. 639-423493.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-481470.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Eibarren. Tel. 632-426847.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 615-739367. M^a Angeles.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako. Esperientzia. Tel. 692-588534.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako. Tel. 688-959575.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 631-562380.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 662-012834.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 612-223075.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 631-746668 eta 632-728235.

4.2. Langile bila

- Eibarko Kids & Us-en ingelesezko irakaslea behar da: ingeles goi mailarekin, dinamikoa, alai eta haurrekin lan egitea atsegin duena. Bidali curriculum-a: direccion.eibar@kidsandus.es
- Neska euskalduna behar da uztailean umea zaindu eta etxeko lanetarako. Erreferentziak eskatuko dira. Tel. 676-105492.
- Pertsona behar da Amañako degustaziorako. Jornada osorako. Tel. 670-251280. igorvazquez@hotmail.com
- Sukaldari orientala behar da autoarekin. Tel. 670-672515.
- GKN Driveline enpresak ekoizpen langile posturako data-basea eguneratu behar du. Beharrezkoa: erdi edo goi-mailako heziketa zikloko titulua. Bidali curriculum-a: ifactory@in-crest.com
- Kamarera/o behar da asteburuetarako. eibarkafe@gmail.com

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Alfombra (zabalera: 1'99 eta luzera: 2'93) eta josteko makina (Alfamatic 109 modelo) salgai. la berriak. Tel. 943-702167.
- 0'90eko sukaldaria salgai, gas-bonbonak eramatekoarekin. Baita 0'90eko ohe artikulatua ere. Berriak. Tel. 617-688311.
- Ohe-kabia salgai. Egur argikoa eta gutxi erabilia. Bi koltxoia barne. Prezio interesgarria. Tel. 664-425380.

6.2. Eman

- Baten batek sofak kendu behar baditu, gustora hartuko nituzke. Tel. 603-460223.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdut/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Izen-ematea

ekainaren 6tik 17ra

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmh
gmhz@mondragon.edu
943 71 21 91

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

2016-2017



LABORAL
KUTXA



Fp
EUSKADI
LANGIDE HEZIKETA

M
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

EROSKI Eibar hipermerkatu berria

EROSKI

zurekin zurekin, bere momentu onenean
Para ti en su mejor momento

Gurekin ospatu!

%25

DOAN*

zure erosketan

Deskontu-baleetan itzuliko dizugu

LARUNBATA

4 EKAINA

Ana Martín
Dendakero profesionala

Bazkideentzat soilik

* Sustapen hau EROSKI Eibar (Otaola hiribidea, 5) hipermerkatuan baliagarria da.
* Baleen gehieneko zenbatekoa: 150€ (baleak emateko erosketaren gehieneko zenbatekoa: 600€).
* Kontsultatu baldintzak zure dendan.

Etor zaitez!

Belaustegi Baserria



JATETXEA

17. URTEURRENA
Gure eskaintza zure neurrira

www.belaustegi.com

San Migel Gaina z/g
Tel.: 943 743 102

